

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO
DEPARTAMENTUA**

Errezilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ingurumen-eraginari buruzko behin betiko txostena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 4. artikuluan dioenarekin bat etorritik, hiri antolamendurako plan orokorrekin eta horien aldaketekin lurzoru urbanizaezinari eragiten diotenean, ingurumen-ebaluazioaren prozeduratik pasatu beharko dira derrigorrez.

Errezilgo Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) egiteko eta onesteko prozesua abiarazi zuen 2009an, plan horren ingurumen-ebaluazioa egiteko barne. Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan eta plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Dekretuan adierazitako izapidetze-prozesua jarraitu zen horretarako; izan ere, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua indarrean sartu aurretik onetsi zen espedientea.

Aplika daitekeen prozedura errespetatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen-organok HAPOren ingurumen-ebaluazioa egiteko erreferentziatzko dokumentua egin zuen eta HAPOren aurretiazko dokumentua eta ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuari buruzko azterlana aztertu ondoren, ingurumen-eraginaren aurretiazko txostena egin zuen.

Ingurumen-eraginaren aurretiazko txostena 2016ko otsailaren 16an egin zen eta bertan ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlanean sartu beharreko informazio gehigarria zehaztu zen. Era berean, ingurumen-eraginaren hainbat kontsiderazio ageri ziren txosten hartan, orokorrak zein espezifikoak, lurzoru urbanizaezinari, hiri-lurzoruari eta lurzoru urbanizagarriari aplikatzeko.

2018ko irailaren 19an Errezilgo Udalak HAPOren behin-behineko onespeneraren inguruko dokumentuak igorri zituen eta ingurumen-eraginari buruzko behin betiko txostena egiteko eskatu zion GFAko Ingurumenaren eta Obra Hidraulikoen Sailari.

Jasotako dokumentuak aztertu ondoren, ingurumen-eraginaren aurretiazko txostenean eskatutako ingurumenari buruzko neurriak eta edukia txertatu direla egiaztatu da, beste aspektu batzuk txertatzeko orduan zenbait hutsune dauden arren. HAPO behin betiko onetsi aurretik konpondu beharko dira hutsune horiek, udalerriko ingurumen-baliabideen eta baliabide naturalen babesa hobetzeko eta Planean bildutako jarduketak buruz ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko xedez.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aurkeztutako dokumentu teknikoak aztertu ondoren eta ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan eta uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekre-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y OBRAS HIDRÁULICAS**

Informe definitivo de impacto ambiental del Plan General de Ordenación Urbana de Errezil.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, los planes generales de ordenación urbana, así como sus modificaciones que afecten a suelo no urbanizable, deben someterse preceptivamente a un procedimiento de evaluación ambiental.

El Ayuntamiento de Errezil inició en 2009 el proceso de elaboración y aprobación de su Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), así como su evaluación ambiental, que se ha efectuado siguiendo la tramitación prevista en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental y en la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, ya que se trata de un expediente que cuenta con aprobación anterior a la entrada en vigor de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

Conforme al procedimiento aplicable, el órgano ambiental de la Diputación Foral de Gipuzkoa emitió el documento de referencia para la evaluación ambiental del PGOU y posteriormente, una vez analizados tanto el documento de Avance del PGOU, como su estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, el informe preliminar de impacto ambiental (IPIA).

El informe preliminar de impacto ambiental, emitido el 16 de febrero de 2016, especificaba la información adicional que debía incorporarse al estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental y realizaba diversas consideraciones ambientales, tanto generales como específicas, para su aplicación a la ordenación del suelo no urbanizable y al suelo urbano y urbanizable.

El 19 de septiembre de 2018, el Ayuntamiento de Errezil ha remitido la documentación de aprobación provisional del PGOU y solicitado al Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la DFG, la emisión del informe definitivo de impacto ambiental.

Estudiada la documentación recibida, se comprueba que se han incorporado parte de las medidas y contenidos de carácter ambiental solicitados en el IPIA, si bien presenta lagunas concretas en la inclusión de otros aspectos, que deberán ser subsanadas con carácter previo a la aprobación definitiva del PGOU, con objeto de mejorar la protección de los recursos ambientales y naturales del municipio y minimizar las afecciones ambientales de la ejecución de las actuaciones previstas en el Plan.

Considerando todo lo anterior, examinada la documentación técnica presentada y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 21 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto

tuan bildutakoa betez, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek Errezilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ingurumen-eraginari buruzko behin betiko txosten hau egin du, 2018ko maiatzeko behin-behineko onespeneren dokumentuen arabera, honako baldintza hauetan:

Lehenengoa. Errezilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aldeko txostena egin da, 2018ko maiatzeko behin-behineko onespeneren dokumentuen arabera, beti ere HAPO behin betiko onetsi aurretik txosten honen bigarren atalean adierazitako aspektuak txertatzen badira.

Bigarrena. Errezilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jarraian adierazitako aspektuak zuzendu, txertatu eta/edo aldatu beharko dira:

1. 11. HE Loidi Azpi sektorea. Esparrua Domusaren jarduera ekonomikoetarako zabaltzeari dagokionez, 11. HE Loidi Azpi HE sektorearen bitartez, eremu horretan jarduera ekonomikoak gauzatzeko lurzorua argi eta zehazki eskatzen bada bakarrik egingo da; izan ere, HAPOn planteatutako jarduketan artetik eragirik handiena izan lezakeena da.

Udalak esparru hori garatzea erabakitzen badu, plan partzialaren bitartez ezartzen den antolamendu xehatua baliatuz lurzorua okupazioa murrizteko, uholde-arriskua murrizteko eta ibaiertzean duen eragina murrizteko ahalegina egin beharko da. Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin beharko zaio plan partzialari.

Nolanahi ere, esparru honen antolamenduak EAEko ibaiak eta errekek antolatzeke LPSan eta Plan Hidrologikoan ezarritako erretiroak eta baldintzak errespetatu beharko ditu. Horrez gain, administrazio hidraulikoaren aldeko txostena izan beharko du. Era berean, bisoi europarrarentzako interes bereziko gunea denez, GFAko Mendietako eta Natura Ingurumeneko Zuzendaritza baimena beharko du.

2. Lurzoru urbanizaezinen kategorizazioa eta antolamendua. HAPOko Hirigintzako Arau Orokorrek behin-behineko onespeneren dokumentuan baino zehaztasun gehiagorekin definitu behar dute lurzoru urbanizaezinerako kategoria bakoitzean (landa-eremuak) bideratu, baimendu eta debekatutako erabilerean eta jardueren erregulazioa. Ingurumen-eraginaren aurretiazko txostenean eskatzen zen bezalaxe, erregulazio horrek erregulazio propiorako matrize bat izan behar du, LAGetan eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean bildutakoak garatzen dituen. Landa-eremu bakoitzean «baimenduta» dauden jardueren kasuan, zein baldintzatan baimendu daitezkeen zehaztu behar da. Era berean, lurzoru urbanizaezineko erabilerean eta jardueren erregulazioak honako aspektu hauek bildu edo zehaztu beharko ditu:

a) Babes bereziko landa-eremuen aplikazio-esparrua eta erregulazioa. Modu koherentean zehaztu behar da antolamendurako kategoria honen aplikazio-esparrua; izan ere, kontraesanak daude testuetan deskribatutako mugapenaren (memorian dio kategoria honetan Pagoeta parke naturaleko eremu periferikoa eta Natura 2000 Sareko Hernio-Gazume espazioa sartzen direla; Hirigintzako Arau Orokorrek, berriz, Hernio-Gazume natura intereseko eremuari bakarrik aplikatzen zaiola diote) eta udal mugartearen kalifikazio osoaren planoan marraztutako mugapenaren (0.03 plano) artean. Azken horretan udal mugarte osoko baso autoktonoek okupatutako espazioak sartzen dira kategoria horretan. Ingurumenaren ikuspegitik, kontserbazio-baliorik altuena duten pagadiak eta hariztiei ere Babes bereziko kategoria aplikatzea gomendatzen da, espazio natural babestuei aplikatzeaz gain. Hernio-Gazume-Aralar-Izarraitz (R 18) loturako korridore ekologikoaren inguruan dauden pagadiak eta hariztiei aplikatu beharko litzaieke batez ere.

ambiental y, en virtud de lo previsto en el del Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, esta Dirección General de Medio Ambiente emite el presente informe definitivo de impacto ambiental relativo al Plan General de Ordenación Urbana de Errezil, según la documentación de aprobación provisional de mayo de 2018, en los siguientes términos:

Primero. Se informa favorablemente el Plan General de Ordenación Urbana de Errezil, según la documentación de aprobación provisional de mayo de 2018, siempre que con carácter previo a su aprobación definitiva, se incorporen al PGOU los aspectos señalados en el apartado segundo de este informe.

Segundo. El Plan General Ordenación Urbana de Errezil deberá completar, incorporar y/o modificar los aspectos que se señalan a continuación:

1. Sector A.U. 11 Loidi Azpi. La ampliación del ámbito para actividades económicas de Domusa mediante el denominado Sector A.U. 11 Loidi Azpi debería llevarse a cabo única y exclusivamente en el caso de que hubiera una demanda clara y específica de suelo para actividades económicas en este enclave, ya que se trata de la actuación que presenta los impactos potenciales más significativos de entre las planteadas en el PGOU.

En el caso de que el Ayuntamiento decida desarrollar este ámbito, la ordenación pormenorizada que se establezca a través del plan parcial deberá tratar de minimizar la ocupación de suelo, reducir la exposición al riesgo de inundación y minimizar la afección sobre la ribera del río. Conforme a lo que establece el artículo 6 de la de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el plan parcial se deberá someter a una evaluación ambiental estratégica simplificada.

En cualquier caso, la ordenación de este ámbito deberá respetar los retiros y condiciones que establecen el PTS de Ordenación de los márgenes de los ríos y arroyos de la CAPV y el Plan Hidrológico, así como contar con informe favorable de la administración hidráulica. Así mismo, como área de interés especial para el visón europeo, requerirá autorización de la Dirección General de Montes y Medio Natural de la DFG.

2. Categorización y ordenación del suelo no urbanizable. Las Normas Urbanísticas Generales del PGOU deben definir con mayor precisión que la contenida en el documento de aprobación provisional, la regulación de usos y actividades propiciadas, admisibles y prohibidas en cada una de las categorías (Zonas rurales) contempladas en el suelo no urbanizable. Tal y como se solicitaba en el IPIA, dicha regulación debe contener una matriz de regulación propia, que desarrolle las recogidas en las DOT y en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal. En el caso de las actividades «admisibles» en cada zona rural, se deben definir las condiciones en las que puedan autorizarse. Así mismo, la regulación de usos y actividades en SNU deberá recoger o precisar los siguientes aspectos:

a) Ámbito de aplicación y regulación de las Zonas rurales de especial protección. Se debe determinar de manera coherente el ámbito de aplicación de esta categoría de ordenación, ya que existen contradicciones entre la delimitación descrita en los textos (la Memoria recoge que se integran en esta categoría tanto la zona periférica del Parque Natural del Pagoeta como el espacio de la Red Natura 2000 Hernio-Gazume, mientras que las Normas Urbanísticas Generales establecen que se aplica únicamente a la zona de interés naturalístico de Hernio-Gazume) y la dibujada en el plano de calificación global del término municipal (Plano 0.03), donde se incluyen en esta categoría los espacios ocupados por bosques autóctonos de todo el término municipal. Desde el punto de vista ambiental, es recomendable aplicar la categoría es Especial protección, además de los espacios naturales protegidos, a los hayedos y robledales de mayor valor de conservación, en especial a los situados en el entorno del corredor ecológico de enlace Hernio-Gazume-Aralar-Izarraitz (R 18).

b) Gainjarritako baldintzatzaileen aplikazio-esparruaren mugapena. HAPOk hirigintzako antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile batzuk zehazten dituen arren eta «D. V Hirigintzako antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak» planoen izaera arautzaileari erreferentzia egiten zaion arren, bidalitako dokumentuetan ez dira plano horiek ageri eta ez daukate gainjarritako baldintzatzaile bakoitzaren aplikazio-esparrua erakusten duen beste planorik ere. Hirigintzako Arauek baldintzatzaile bakoitzaren aplikazio-esparruaren mugapen zehatza adierazi behar dute eta horrez gain, baldintzatzaile bakoitza aplikatzeko inplikazio eta baldintza zehatzak ere adierazi behar dituzte, erabilerak eta jarduerak baimentzeko eta gauzatzeko.

c) «C.5 Interes geomorfologikodun eremuak» baldintzatzailearen birformulazioa. Baldintzatzaile honen izena ez da egokitzat jotzen; izan ere, definizioagatik, badirudi Basogintza LPSan definitutako eta mugarriztatutako «Eremu higagarri» egiten diela erreferentzia, benetako interes geomorfologikodun eremuei erreferentzia egin ordez. Udal mugartean espazio higagarriek azalera handia hartzen dutela kontuan hartuta, baldintzatzailea LPSren antolamendurako arauetako 56. artikuluan definitzen, mugatzen eta aplikatzen den bezalaxe hartzea iradokitzen da.

d) HAPOren Arau Orokorrek beren-beregi diote Hernio-Gazume Kontserbazio Eremu Bereziaren kudeaketarekin zuzeneko loturarik ez duten eta hura kudeatzeko beharrezkoak ez diren planek, proiektuek eta jarduketek KEBri modu nabarian eragin ahal badiote, banaka edo beste plan edo proiektu batzuekin konbinatuta, toki horri ekar diezaieketen ondorioak behar bezala ebaluatuko direla. Era berean, KEB aitortzen duen Dekretuak KEBrako ezarritako zonifikazioa gehitu beharko litzateke HAPOra.

3. Zarautz - Azpeitiko (Urola Kosta) eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren 2. Aldaketan bildutako zehaztapenak gehitzea, paisaiaren inguruak. Irailaren 18ko 132/2018 Dekretuaren bidez onetsi zen aldaketa hori. Gomendio erako xedapen arautzaileak biltzen ditu aldaketa horrek, paisaiaren kalitatea lortzeko helburu batzuekin, hirigintzako plangintzarako eta lurralde-plangintza sektorialerako inspirazio bezala hartzeko printzipioak izan behar direnak. Aurrekoaz gain, «interes paisajistikodun eremu» batzuk mugarriztatzen ditu eta horien kasuan Paisaiaren Ekintza Planak egitea gomendatzen da. Errezilen kasuan, «interes paisajistikodun eremuen» baitan bi zehazten ditu:

– IPBE 2 BGL Hernio-Gazume (espazio babestuei lotutako eremu nabarmenak).

– IPBE 24 Errezilgo harana (espazio babestuei lotuta ez dauden eremu nabarmenak).

HAPO LPPren Aldaketara egokitzeko eta paisaiari buruzko zehaztapenak txertatzeko, honako hau iradokitzen da:

a) HAPOren eta paisaiari buruzko zehaztapenen bateragarritasuna aztertzea eta zehaztapen horiek HAPOren antolamendurako irizpide eta helburuetan txertatzea.

b) Paisaiaren zehaztapenetan mugarriztatutako interes paisajistikodun bi eremuei gainjarritako baldintzatzaile bat aplikatzea. Horri dagokionez, Hirigintzako Arauetako C.4 «Katalogatutako paisaiak» baldintzatzailearen definizioa, aplikazio-esparrua eta eraikuntzarako eta erabilerarako araubide orokorra birformulatzeko komeni da, Katalogoan ezarritakora eta Urola Kostako paisaiari buruzko zehaztapenetara egokitzeko. Era berean, HAPOk interes paisajistikodun bi eremuetarako paisaiaren ekintza planak egiteko beharrezana bildu beharko du.

4. Kutsatutako lurzorua. Hirigintzako Arau Orokorrek beren-beregi aipatu behar dute lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura gauzatzeko betebeharra, ekainaren 25eko 4/2015 Legeko 23. artikuluan bildutako kasuetan. Bestela, kasua bada, lurzorua erabilera industrialerako egokia dela adierazteko prozedura gauzatzeko betebeharra aipatu beharko dute, lege bereko 24. artikuluan ageri dena. Era berean, 7. HE Domusa eta 8. HE Arosar esparruen hirigintza-fi-

b) Delimitación del ámbito de aplicación de los condicionantes superpuestos. Si bien el PGOU define un conjunto de condicionantes superpuestos a la ordenación urbanística y se hace referencia al carácter normativo de los planos «D.V Condicionantes superpuestos a la ordenación urbanística», la documentación remitida no cuenta con dichos planos ni contiene ningún otro que refleje el ámbito de aplicación de cada uno de los condicionantes superpuestos. Las Normas Urbanísticas deben recoger, tanto la delimitación exacta del ámbito de aplicación de cada uno de los condicionantes, como las implicaciones y condiciones concretas de la aplicación de cada condicionante para la autorización y ejecución de usos y actividades.

c) Reformulación del condicionante C.5 Áreas de interés geomorfológico». La denominación de este condicionante no se considera adecuada, ya que por su definición parece referirse a las «Áreas erosionables» definidas y delimitadas en el PTS Agroforestal, más que a las verdaderas áreas de interés geomorfológico. Teniendo en cuenta la presencia de superficies significativas de espacios erosionables en el término municipal, se sugiere la adopción del condicionante tal y como se define, delimita y aplica en el artículo 56 de las Normas de ordenación del PTS.

d) Las Normas Generales del PGOU deben hacer una referencia expresa a que todos planes, proyectos y actuaciones que, sin tener relación directa con la gestión de la Zona Especial de Conservación de Hernio-Gazume y sin ser necesario para la misma, pueda afectar de forma apreciable al ZEC, ya sea individualmente o en combinación con otros planes o proyectos, se someterá a una adecuada evaluación de sus repercusiones en el lugar. Así mismo, sería conveniente incorporar al PGOU la zonificación que el Decreto de declaración de la ZEC establece para la misma.

3. Incorporación de las determinaciones de la 2.ª Modificación del Plan Territorial Parcial del área funcional de Zarautz - Azpeitia (Urola Kosta) en lo relativo a las determinaciones del paisaje, aprobada por el Decreto 132/2018, de 18 de septiembre. Esta modificación contiene disposiciones normativas de carácter recomendatorio, con unos objetivos de calidad paisajística que deben ser principios inspiradores del planeamiento urbanístico y territorial sectorial. Así mismo, delimita una serie de «áreas de interés paisajístico» sobre las que se recomienda la elaboración de Planes de Acción del Paisaje. En el caso de Errezil, define dos «áreas de interés paisajístico»:

– AEIP 2 LIC de Hernio-Gazume (Áreas sobresalientes vinculadas a espacios protegidos.).

– AEIP 24 Valle de Errezil (Áreas sobresalientes no vinculadas a espacios protegidos.).

Para adaptar el PGOU a la Modificación del PTP e incorporar las determinaciones del paisaje, se sugiere:

a) Analizar la compatibilidad del PGOU con las determinaciones del paisaje e incorporar dichas determinaciones a los criterios y objetivos de ordenación del PGOU.

b) Aplicar un condicionante superpuesto sobre las dos áreas de interés paisajístico delimitadas en las determinaciones del paisaje. A este respecto, sería apropiado reformular la definición, ámbito de aplicación y el régimen general de edificación y uso del condicionante C.4 «Paisajes Catalogados» de las Normas Urbanísticas, para su adaptación a lo establecido en el Catálogo y las Determinaciones del Paisaje de Urola Kosta. Así mismo, el PGOU deberá recoger la necesidad de elaborar planes de acción del paisaje para las dos áreas de interés paisajístico.

4. Suelos contaminados. Las Normas Urbanísticas Generales deben hacer una mención expresa a la obligación de llevar a cabo, en los supuestos considerados en el artículo 23 la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, el procedimiento de declaración de la calidad del suelo o, en su caso, el procedimiento de aptitud del suelo para un uso industrial del artículo 24 de la misma Ley. Así mismo, deberá recogerse dicha obligación en las fichas urbanís-

txetan agertu beharko da betebeharrori, eta baita C.7. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak gainjarritako baldintzatzailean ere, lurzoru urbanizaezin modura inbentariatutako kokalekuan aplikatzeko. Hirigintzako arauetan 1/2005 Legeari (indargabeketa dago) egiten zaizkion erreferentziak lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legeari, ekainaren 25ekoari, egin beharko zaizkio.

5. HAPOn bildutako hirigintza-jarduketan eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuek (eta 11. HE Loidi Azpiren antolamendu xehatuak kasu horretarako ezartzen duen Plan Partzialak) iraunkortasun printzipioak eta klima-aldaketa murriztu eta hartara egokitzeko irizpideak barne hartu beharko dituzte. Zentzu horretan, honako hauek lortzeko ingurumen neurriak eta ohitura onak barne hartu beharko dituzte:

a) Iraunkortasun energetikoa. Eraikinak eraginkortasun energetikorik handiena lortzeko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko moduan diseinatuko dira. Posible den heinean, «ia energiari kontsumitzen ez duten» eraikinak lortzen saiatu beharko da, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko 2010/31/EB Zuzentarauan definituta dagoen moduan. Aurrekoaz gain, argiteria publikoaren kasuan ere ahalik eta gehien aurreztu beharko da eta ahalik eta eraginkorrena izan beharko da.

b) Berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa murriztu beharko da eraikuntzan.

c) Uraren erabilera eraginkorra izan beharko da eta hornidura- eta saneamendu-sistemak ere eraginkorrak izan beharko dira.

d) Espazio publikoak eta garraiorako azpiegiturak birnaturalizatu beharko dira, naturan oinarritutako irtenbideak bilatuz: hiriko parkeak, zoladura iragazkorak, orubeak leheneratzea, faxada berdeak, etab.

e) Iraunkortasun irizpideak aintzat hartuta diseinatu eta kudeatu beharko dira lorategiak eta berdeguneak.

Neurriak eta ohitura onak zehazteko, honako argitalpen hauetan deskribatutakoak hartuko dira kontuan:

– «EAEn etxebizitzak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida» (IHOBE).

– «Irtenbide naturalak EAEko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko» (IHOBE).

– «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» (Udalsarea 21).

6. EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 62. artikuluan ezarritakoari jaramon eginez, HAPOn onesteko dokumentuen artean ingurumen-eraginaren aurretiazko txostena betetzen dela justifikatzeko memoria egon beharko da. Txosten horretan ageri diren zehaztapenak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren parte diren dokumentuetan nola txertatu diren erakutsi beharko luke memoria horrek.

Donostia, 2019ko otsailaren 11.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia. (1290)

ticas de A.U. 7 Domusa y A.U. 8 Arosar, así como en el condicionante superpuesto C.7. Suelos potencialmente contaminados, para su aplicación en el emplazamiento inventariado en suelo no urbanizable. Las referencias que se realizan en las Normas Urbanísticas a la Ley 1/2005 (derogada) deben hacerse a la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

5. Los proyectos de edificación y urbanización de las actuaciones urbanísticas previstas en el PGOU (así como el Plan Parcial que establezca, en su caso, la ordenación pormenorizada del A.U. 11. Loidi Azpi) incorporarán criterios de sostenibilidad y de mitigación y adaptación al cambio climático. En este sentido, incorporarán medidas y buenas prácticas ambientales orientadas a lograr:

a) La sostenibilidad energética. Los edificios se diseñarán buscando la máxima eficiencia energética y el aprovechamiento de energías renovables. En la medida de lo posible, se tratará de lograr edificios de «consumo energético casi nulo», tal y como se definen en la Directiva europea 2010/31/UE, de eficiencia energética de los edificios. Así mismo, se buscará el máximo ahorro y eficiencia en el alumbrado público.

b) La reducción del consumo de materias primas no renovables en la construcción y edificación.

c) La eficiencia en el uso del agua y de los sistemas de abastecimiento y saneamiento.

d) La renaturalización de espacios públicos e infraestructuras de transporte, buscando soluciones basadas en la naturaleza, como parques urbanos, pavimentos permeables, restauración de solares, fachadas verdes, etc.

e) El diseño y gestión de jardines y espacios verdes con criterios de sostenibilidad.

Para la definición de las medidas y buenas prácticas, se considerarán las descritas en las siguientes publicaciones:

– «Guía de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV» (IHOBE).

– «Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV» (IHOBE).

– «Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles» (Udalsarea 21).

6. Conforme a lo que se establece en el artículo 62 de la Ley 2/2006 de Suelo Urbanismo del País Vasco, la documentación para aprobación del PGOU deberá incluir una memoria justificativa del cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental, entendiendo como tal una exposición de cómo se han incorporado las determinaciones de dicho informe en los documentos que forman parte del Plan General de Ordenación Urbana.

San Sebastián, a 11 de febrero de 2019.—La directora general de Medio Ambiente, Mónica Pedreira Lanchas. (1290)